

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

Larrabea urbanizazioko etxeko edateko uraren eta saneamenduaren zerbitzua: 2019ko lehenengo hiruhilekoari dagokion zerga errolda jendaurrean jartzea eta diru bilketako epea adieraztea

Hamabost egun baliodunez, ediktu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, jendaurrean egongo da Larrabea urbanizazioko etxeak edateko urez hornitzeko eta saneamenduko zerbitzuaren 2019ko lehenengo hiruhilekoko zerga errolda, interesa dutenek aukera izan dezaten hura aztertzeko eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko.

Errolda behin betiko onartutzat emango da epe horren barruan ez bada erreklamaziorik aurkezten.

2019ko apirilaren 15etik ekainaren 15era bitarteko egun baliodunetan (biak barne) ordaindu ahal izango dira, borondatezko epean, dagozkion ordainagiriak.

Ordaintzeko modua.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Legutioko Udalak kudeatuko du zuzenean ordainketa helbideratu den banketxeetako kontuetan egindako kargua 2019ko ekainaren 15ean.

Finantza erakundeetan helbideratu gabeko ordainketak (gaztigu oharrarekin):

- Udalaren bulegoetan, kreditu txartelarekin.
- Kutxabanken bulegoetan.
- Interneten bidez, Legutioko Udalaren webgunean (Nire Ordainketa).

Gomendioak.

Nola bankuko helbideratzeen altak eta aldaketak, hala bizileku aldaketak, gerora jakinarazpenak egiteko, Legutioko Udalean izapidetu behar dira.

Epe hori igarota, premiamenduko betearazte bideari ekingo zaio, eta ordaindu gabeko kuotei Arabako zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak xedatutako errenergua gehituko zaie.

Legutio, 2019ko maiatzaren 7a

Alkatea

NEKANE GARAIGORDOBIL BENGOA